Etxebarria
udala

ALKATETZA-DEKRETUA 2026/127

KONTUAN HARTUZ Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, lege-testu horren 116. artikuluari dagokionez, 14/2019 Errege Lege Dekretuak emandako idazketan, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen du Etxebarriako udalaren titulartasunpeko ondasunen garbiketarako zerbitzu kontratua egitea. Jarduketa hori zerbitzu-kontratu administratibo batean sar daiteke, 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

KONTUAN HARTUZ Etxebarriako udalak, ez dituela, gaur egun, lan horiek bere gain hartzeko beharrezkoak diren baliabiderik eta kontratuaren xede diren prestazioek Udalak gaur egun langileen-plantillan duen langile bakarra baino gehiago behar dituela.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 28.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, kontratazio-organo gisa, justifikatu egiten da zerbitzu administrazio-kontratura jo beharra, giza baliabide eta baliabide material nahikorik ez dagoelako, lehendabizi adierazitakoaren arabera.

KONTUAN HARTUZ Udaletxearen eskumena eta betebeharra dela udal titulartasunpeko ondasunen mantentze eta kontserbazioa.

KONTUAN HARTUZ Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Alkatetzari dagozkiola kontratazio-organoaren eskumenak,

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Etxebarriako udalaren titulartasunpeko ondasunen garbiketarako zerbitzu administrazio-kontratua izapidetzeko administrazio-espedientea onartzea.

BIGARRENA.- Udal honetako Zerbitzu Teknikoek ebatzitako, administrazio-kontratazioko espedienteko plego tekniko eta administratiboak, memoria justifikagarria, idazkaritza eta kontuhartzailetza txostenak onestea.

HIRUGARRENA.- Aurrekontu kontsignazioa egin dadin agintzea hurrengo 3 aurrekontu-ekitaldietan zehar, 337.21101 *"Konponketak eta mantenim. (frontoetxekoa)"* eta 320.21101 *"Konponketak eta mantenim. (eskola/liburutegikoa)"* aurrekontu-partiden kontura, kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 48.934,78€ (BEZ barne) izanik; kontratuaren esleipena baldintzatuz kontratua finantzatuko duten baliabideen nahiko aurrekontu-kreditua egoteari.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau administrazio honen kontratatzailearen profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen – SPKL 2017 – 116. Eta 117. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, 14/2019 Errege Lege Dekretuak emandako idazketan.

BOSTGARRENA.- Kontratazio-mahaiko kide izendatzea:

Lehendakaria: Koldo Ibarzabal Ansola Toki Korporazioko kidea
Kideak: Aratz González Pereda (Toki Korporazioko idazkari-kontu-hartzailea), Zorion Antxustegi Garitagoitia eta Araceli Alberdi Aramburu (Toki Korporazioko lan-kontratuko langile finkoak).

Etxebarrian, 2026ko urriaren 15ean.

Alkatea

-Jesús Iriondo Lejardi-

15367220T
JESUS
IRIONDO (R:
P4803700F)
2026.10.15
14:06:03
+02'00'